



Aisia euskaraz bizitzeko hainbat aukera

Aisia euskaraz gozatu ahal izateko aukera ugari dute herriko gazteenek Ttakunen eskutik. Lagun berriak egin, ongi, pasa, esperientzia berriak bizi, irteerak... Hori guztia egin dezakete txikienek Amaraun ludotekan astelehenetik ostegunera; gazteenek, ostiralean Gazte klubean eta helduagoek Kuadrillategin. /4-5. orrialdeak



Denetariko trikimailuak egin zituen ostiral gauean Txan Magoak eta bat baino gehiago ahoa bete hartz utzi zuen zenbait momentutan.

Magia iritsi zen Jalgira

■ Gaizki ulertu bat tarteko, ordu erdi berandu hasi zen Txan Magoaren ostiraleko emanaldia

Gau magikoa bizi izan zuen Jalgirako Kafe antzokiak ostiralean, Txan Magoaren bisita jaso baitzuen. Jende asko bertaratu zen azti famatuaren emanaldia ikustera eta saio interesgarri batez gozatu ahal izan zuten bildu ziren guztiek. Zenbait momentutan ahoa bete hartz geratu zen bat baino gehiago.

Country-a kultur etxeko kafetegian

Low-Riders taldeak ostiral Lilunabarrean kultur etxeko kafetegian kontzertu ederra eskaini zuen, giro intimista batean. Bi gitarrak osatutako taldeak rock eta country kutsua zeukan musika egin zuen, ingelesezko letra sakonez lagunduta. Zenbait momentutan doinu alaiak eta beste zenbaitetan sakonagoak nahastuz, kontraste polita sortu zuen bikoteak. Kontzertu hau Lasarte-Oriako udaleko Gazteria Sailak Xpressionk! elkartearen artean sinatutako hitzarmenari esker antolatutako egitarauan kokatzen da.



Bi gitarrak osatutako Low Riders taldeak rock eta country doinuak uztartu zituen ostiraleko kontzertuan.

ELKARRIZKETA /2

Alpeetan, Dolomitak mendietan, ibili dira lau lasarteoriatar uda honetan

ALBISTEA/3

Buruntzaldeko ibilbideen eguna urriaren 16an

KIROLA/6

Zubietako Mendi duatloi ikusgarria larunbatean



LASARTE-ORIAKO UDALAK
ELKARTE ETA HERRITARRAK
GONBIDATZEN ZAITUZTE, AURKEZPEN EKITALDIRA

EGUNA: osteguna 13, Manuel Lekuona Kultur Etxeko kafetegian

ORDUA: arratsaldeko 18:30ean

BERTAN ELKAR IKUSIKO DUGU !!

Txintxarri Dolomitetara iritsi da udan

Alpetako Dolomitak mendizerran ibili dira lau lasarteoriatar uda honetan

Mendizaletasun handia dago Lasarte-Orian. Herritar batzuk izan dira uda mendian pasatzea erabaki dutenak horregatik, hauek bizitako zenbait abentura jasoko ditugu datozen aletan. Kasu honetan Alpetako Dolomitetan ibili diren Alex Tetuan, Txomin Otaegi, Txetxu Martxan eta Tomas Imaz-en nondik norakoak ditugu hizpide.

Maidar AZURMENDI

Lau lasarteoriatar ibili dira uda honetan Alpetan. Zehazki Dolomitetan egon dira Alex Tetuan, Txomin Otaegi, Txetxu Martxan eta Tomas Imaz. Hamalau eguneko txangoa eta esperientzia polita izan da lau lagunentzat.

Mendizaletasuna dute komunean eta urteroko Pirinioetarako irteera aurtengoan luzatzea erabaki zuten. Ohiturari jarraiki, udan bost edo sei egun Pirinioetan egitea pentsatuta zuten laurak baina plana aldatu eta bidaiia luzeagoa egiteko aukera zegoenez, Alpetara joatea erabaki zuten azkenean.

Dolomitetan mendian ibili eta eskalatzeko aukera dago eta horrela bi planak egin ahal izan zituzten Tomas Maizek azaldu bezala "Alex eta Txomin eskalatzea gogoko dutenez, hauek mendiak eskalatzeko ibiltzen zitezuten eta guk mendi berdinak bide-tik egiten genituen."

Paisaia ederra

Ertzak edo aristak dira gailurrak Dolomitetan, "harkaitzak izugarriak dira" baina Europako txoko honetatik hainbeste jende ibiltzen denez, igotzeko ondo prestatuta daude mendiak eta kableak, sokak baita eskailerak ere aurkitzen dira zati zailenetan.

Jende asko gerturatzeko bere edertasuna dela eta turismoa egitea. Tomas Maizek azaltzen duenez, kasu askotan bertatik dabiren jendeak ez ditu mendiak igotzen, hauen magaletik dauden ibilbide ugarietatik paseatzeko dute soilik. Lehen Mundu Gerran Italia eta Austria-Hungariako Inperioko armaden arteko frontea Dolomitetan egon zen horregatik, "zenbait tokitan mendia zulatuta dago eta haitzean egindako labirintoak daude, trintxerak izandakoak. Oso deigarria."

Paisaia benetan ederrak direla kontatzen du Tomas Maizek, haran politak bai mendiak halakoak direlako, baita aurkitzen diren herrixkak oso koloretsuak eta zainduak daudelako ere. Inguru

hau txirindularitza jarraitzen dutenentzat ezaguna da bertatik pasatzen baitira Giro-ko hainbat etapa, "bizikleta zaleentzat leku ezin hobea da bideak 2.200 metroko altuerara iristen dira".

Gizakiaren eragin handia

Mendizaleen artean oso puristak direnak ez daude Dolomitetan egindakoekin ados, izan ere Maizen hitzetan, kablea, eskailerak eta telesillarekin gizonak gehiegizko eragina izan duela uste dute askok, paisaia eta mendia aldatuta dagoela diote.

Dena den, mendizaleentzat oso prestatuta egon arren, ibilbideak etxetik prestatuta eraman zituzten "Alexen lagun batzuk egonda zeuden eta joan aurretik liburu batzuk pasa zizkiguten ibilbideak prestatu ahal izateko. Pirenaica aldizkaritik ere zenbait artikulua kontsultatu genituen".

Egun gehienetan Gardecia-tik abiatu ziren helmugara eta eguraldi ona lagun, hamar ordu inguruko mendi irteerak egin zituzten eta tontor bat baino gehiago. Garaiena Dolomitetako erregina, Mar-molada di Penia.

Bertako mendi-aterpean Arrasaten bizitako zaindari bat zegoen "euskaraz ari ginela entzutean kafe bat hartzera gonbidatu gintuen bertan, 3.300 metroan." Bertan dago Dolomitetako glaziar bakarra.

Txintxarri Dolomitetan

Ibilaldiak martxa lasaian egin zituztela esaten du Maizek, "lasai igotzea atsegin dugu, mendia disfrutatuta eta tartean argazki bat edo beste atereaz." Mendian asko ibiltzen direla azpimarratzen du Maizek, "gorputza prestatuta egon behar da maldan gora ondo ibili ahal izateko eta kasu honetan maldaz gain, gailurreraino ibilbide luzeak egiteko". Izan ere, denetatik ikusten omen da mendian gaur egun.

Deigarria gertatu zitzairen bertan beste euskalduniek ez topatzea "Triana auzoko Sevilako batzuk ezagutu genituen baina mendizale euskalduniek ez inguruan".



Alex Tetuan 3.173 metro dituen Dolomitetako Tossa di Brenta gailurrean esku artean Txintxarri duela.




Atzean Castelletto gailurra duela Alex Tetuan igotzen Brenta mendigunerantz.

Modu honetako beste irteera luze bat egitea zaila izango da lau lagunentzat batez ere familia eta lan kontuak direla eta.

Hala ere betiko martxan jarraitzen du lagun koadrilak asteburutan inguruko mendietara egiten dituzte txangoak eta horretaz gain, mendi mar-txa luzeetan parte hartzen dute, maiatzean lasarteoriatarrek antolatzen duten 14 ordukoaren tankerakoak.

Koadrilak Dolomitetara Txintxarri eraman zuen eta gure aldizkaria han egon zelaren lekuko argazkia Tossa gailurrean. •



Civetta mendia bezalako paisaia ederrak dira turistentzat erakargarri nagusia.

Buruntzaldeko Ibilbideen 4. Eguna, urriak 16an, eskualdea ezagutzeko

■ Kirola eginez gure herrietako inguruak ezagutzeko aukera izango da antolatutako bost ibilbideei esker ■ Autobusa doan egongo da Topaketaren amaieran etxera bueltatzeko

Buruntzaldeko ibilbideak izeneko proiektuari esker edozein herritarrek ezagutu dezake gure eskualdea. Lehia-tzeko ez den eta jende mota guztientzako egokia den kirola proposatzen dute beste urte batez Buruntzaldeko lau Udalek. Gure inguruko parajeak eta bere landa-inguru naturala ezagutzeko aukera ederra izango da datoren igandean, urriaren 16an 9:00etatik 14:00etara.

Bideidor eta bide ezberdinak (bost bide topaketa hauetan) aurkitzen ditugu gure inguruetan. Aukera ezberdinak proposatzen zaizkigu beste behin ere Buruntzaldeko ibilbideen eguneko laugarren topaketa honetan.

Herrietan ibilbide zati bakoitzaren inguruko traza-tuak, profilak eta distantziak erakusten dituzten panelak jarriko dira eta bideetan norabideak eta distantziak markatzen dituzten geziak eta zuinak. Aurreko edizioetan bezala, seinaleak udalerrri bakoitzaren identifikazio kolorea aintzat hartuz ipinita egongo dira. Lasarte-Oria urte zaharraren kolorez, Urnieta berdeaz, Usurbil laranja eta Andoain urdinez adierazita egongo dira.

Andoain eta Lasarte-Oria lotzen dituen ibilbidean urdi-

na eta urre zaharra izango dira; 7,9 kmko luzera du eta oinez soilik egin daiteke.

Andoain eta Urnieta ibilbidea urdina eta berdez irudikatuta ikusiko dugu. 4,8 kmko luzera du eta oinez zein bizikletaz egin daiteke.


Andoain eta Usurbil urdinez eta laranja irudikatuta ikusiko dugu. 14,9 kmko luzera du (luzeena), eta oinez soilik egin daiteke.

Lasarte-Oria-Urnieta ibilbidea, urre zaharra eta berdez ikusiko dugu seinalatuta. 3,9 kmko luzera du, eta oinez zein bizikletaz egin daiteke.

Azkenik, Lasarte-Oria eta Usurbil elkartzen dituen ibilbidea dugu. 4,5 kmko luzera du (Santuenueraino) eta oinez edo bizikletaz egin daiteke.

Umeentzako deialdia

Ostadar elkarteak aurtengo honetan parte hartzeko deial-



Buruntzaldeko inguruak ezagutzeko aukera paregabea du igandean nahi duen orok.

di berezia egin die Landaberri ikastolako umei. Nahi dutenek 10:00etan San Pedro elizan hitzordua dute hemendik hasita elkarrekin ibilbide zati bat egiteko.

Buruntzaren magaletik Lasarte-Oria eta Andoain arteko zatia egiteko asmoa dago. Antolatzaileen ustetan bi

orduko iraupena izango du ibilaldiak eta ondoren herrira bueltatzeko autobusa hartuko dute. Izan ere, aurten ere doako autobus zerbitzua egongo da.

Ostadarreko arduradunak izango dira bertan haurrak gidatu eta zaintzeko, hala ere, gurasoek parte hartu nahi

badute, aukera izango dute gurasoek ere beraiekin joateko.

Autobusak doan

Topaketaren amaieran autobus zerbitzua eskainiko da, partaideak euren herrira itzultzeko. Aurrekoetan bezala zerbitzu hau erabili ahal izateko, derrigor, hasieran jasotako txartela zigitatua aurkeztu beharko da. Orduetgia ezberdina izango da; eta Usurbildik atera, Lasarte-Oria, Andoain eta Urnieta joko du. Ondoren buelta berriro.

Lasarte-Orian Dorretzeko biribilgunea izango da geltokia. Autobusak 12:15, 13:15 eta 14:15ean irtengo dira bertatik.

Usurbilen, udaletxe aurrean, Nagusia 22n izango da geltokia. Orduetgia, 12:00etan, 13:00etan eta 14:00etan.

Andoainean Goiko plazaren atzealdetik irtengo da autobusa. 12:30, 13:30 eta 14:30ean izango ditu iteerak.

Azkenik, Urnietan kiosko geltokian hartu ahal izango da. Autobusak, 12:40, 13:40 eta 14:40ean. Azken autobus honekin zerbitzuaren amaiera izango da. •

PSE utzi du Marisa Zubiri zinegotziak

Udal gobenuak bilera irekia antolatu du herritarrekin urriaren 13an

Bihar, asteartea, urriaren 11, 18:30ean, hasiko da udaletxean urriko ohiko bilkura. Udalak aurreratu duen gai zerrendaren arabera jende aurreko udal batzar honetan, hamar gai jorratuko dira, besteak beste, kirol zerbitzuen araudian aldaketa, eta zabor bilketari buruzko PSEren proposamena.

Ohiko bilkura Marisa Zubiri PSEko zinegotziaren idatzia-ekin hasiko da. Honetan talde sozialista uzteko erabakia publiko egin eta adskribatu gabeko zinegotzi zatara pasatzen dela jakinaraziko du. Honen harira, aldaketak egongo dira batzorde informatibo ezberdinetarako talde sozialistak izendatutako ordezkarien artean.

Bestalde, astearteko bileran, "A-34 Goiegiko Ibarra" HIE urbanizatzeko jarduketa programaren lehenengo aldatetari behin betiko onespenera emango zaio, eta hasierako onespenera berriz, kirol zerbitzuen araudi orokorraren aldatetari.

Kirolarekin jarraituz, kirol zerbitzuak elkarrekin emateko Buruntzaldeko udalek izenpetutako lankidetzarako hitzarmenaren aldaketaren onspenera ere egingo da batzarrean.

Alkatetzatik egingo diren proposamenei dagokionez, batetik Euskal Fondoan udalaren ordezkaria Pablo Barrio alkatea bera izatea proposatuko dute udal agintarek, eta bestetik, Landaberri BHI

Taxio Arrizabalaga zinegotzia izatea udalaren ordezkari.

Horretaz gain, alkatetzak Batzorde informatibo guztiak osatuko dituzten talde politiko bakoitzeko kideen kopuruak erabakitze eskumena dauka. Horrela, hauteskundeetako emaitzak kontutan izatea erabaki du eta honako ordezkariak proposatu du: PSE-k 3 kide izatea, Bilduk 2, EAJ-k 1, LOHP-k 1, PP-k 1 eta Adskribatu gabeko 1, baina zinegotzi kopuruaren arabera kontatuko dira botuak.

Eztabaidatuko den azken gaia PSE-k 5. kontenedorea herrian jartzearen alde aurkeztutako mozioa izango da. Plenoari bukaera eman aurretik, galderak eta eskaerak egiteko tartea ere egongo da.

Herritarrekin bilera

Udal gobernu berriak herriko elkarte, gizarte-eragile eta oro har, herritarrentzako bilera irekia egingo du ostegunean kultur etxean eta herritarrei parte hartzeko deia luzatu diete bertatik.

Hitzordua urriaren 13an, ostegunean, 18:30etan izango da kultur etxeko kafetegian. Bertan, udal gobernu osatzen duten kideak egongo dira euren burua aurkeztu eta ondorengo hilabeteotan egingo duten lana ezagutzera emateko.

Horretaz gain, herritarrek euren proposamenak eta kezak azaltzeko aukera izango dutenez, udalak herritarrak honetan parte hartzea animatu nahi ditu. •

MENDI IRTEERA

Larraitzeko abentura parkera

Zabaletako auzo elkarteak Larraitzera mendirte antolatatu du urriaren 12 asteazkene-rako. Aukera ezberdinak dira: Gaztelu mendira igo, Larraitz parke abenturan ibili edo Larraitzetik Albaltzisketara 2-3 kmko bide gorrian joan etorria. Izena auzoko dendan edo zabaletauzolan@hotmail.com eta mattinkolo@gmail.com helbide elektronikotan. •

IKASTAROA

Alboka txikiren ikasturte hasiera

Astelehenean urriaren 10ean hasiko da Alboka Txiki abesbatzaren ikasturtea. Astelehenero elkartuko dira 19:00-20:00 artean Zumaburuko elizaren azpian Montse Latorrerekin. 6-12 urteko haurrek bertan eman dezakete izena. •



Inauteretan, San Fermineko bukadak taldeak izan ziren Kuadrillategiko neska eta mutilak.



DYako lagunek, lehergo sorospenek enakuzi zieten txikiak.



Eskulak ugarri egiten dira Ludoteketan, baita mozorroak ere.



Kuadrillategiko gazteek beste herrietako gazteak ezagutu eta rinfingea egin zuten nazko KTCg festaren barruan.

Aisia euskaraz gozatzeko... Ludoteka, Gazte kluba eta Kuadrillategi

■ 3 eta 16 urte arteko haur eta gaztetxoentzat, ikastolatik atera ondoren egiteko eskaintza zabala du Itakun elkarteak ■ Adineko egokitutako jolas, tailer, ekintza berezi, irteera...

Neska BIZCARRER
20:00an, jolas egiteko gunea da, hazteko eta amesteko lekua.

Lasarte-Oriako haur eta gaztekoak zonetako dira, gure herrian Itakun kultur elkarteak duen aisia eskaintza dela eta.

Lagun berriak egin, ongi, pasa, esperientzia berriak bizizi, irteerak... Hori guztia egin dezakeen txikiak Anautan. Lagun berriak egin, ongi, pasa, esperientzia berriak bizizi, irteerak... Hori guztia egin dezakeen txikiak Anautan. Lagun berriak egin, ongi, pasa, esperientzia berriak bizizi, irteerak... Hori guztia egin dezakeen txikiak Anautan.

Ludoteka
Amarau Ludoteka, astelehenetik ostegunera, 17:00etik

txetxoenen programazioak aurten jolasak eta ohiko tailerrez gain, argizkigintza eta sukaldaritza, bi berrikuntza dakartza.

Astelehenera taldeko arketak jolasak izango dituzte, hala nola, hockeya, saskibaloia...

Etan asteazkenetan, aldirarte txokoa egingo da, 17:30ak eta 19:30ak artean. Honetan haurrek eskulan bereziak egiteko aukera izango dute. Erabiliko diren materialerako baitzuk egurra edo

Honetaz gain, haur guztiek larunbata gozatzeko eskaintza.

tza berezietzat gozatu ahal izango dute eta hainbat behin ipuin-kontalaria izango da Amarau Ludotekan.

Berriketa
Ludoteketan izena ematen duten haurrek zuzenean loruztzen dute. Erabiliko diren materialerako baitzuk egurra edo

Honetaz gain, haur guztiek larunbata gozatzeko eskaintza.

dituzte eta klubeko ekintzetan parte hartu ahaliko dute, hala nola, Amarau Ludotekaren bitartez.

Eraren, Ludoteketan dauden jostailuen maila zehaztua erabili dezake eta begiraleen aholkularitza izango dute.

Gainera, Gabonetako eta Aste Santuetako Txokoa %10eko beharpena izango dute.

Izena ematea
Amarau Ludotekako hiruhabeteko matrikula 44 eurokoa da eta Itakuneko bulegoan egin behar da.

Lagun berriak egin eta lokala ezagutzen...

Gazte Kluba ostiralean iteki zuten bere atek, berrikuntza dira aurretik, bi talde egingo dira besteak. Erribera kaleko lokalean hainbat abentura biziko dituzte.

LH3 eta LH4ko haurrek elkar ezagutu eta hurrengo saso baten egingo duten kurre-karera prestatzen hasi ziren, hala nola, zeri motataz, koaxea egin pentsatu zuten.

Gaztekoek, LH5 eta LH6koek lokal berriko arauk ezagutu eta bertan zuten, Ostein, taldeka jarri zuten, lokala txukundu eta haren gostura jarri zuten. ■



Informazio gehiago nahi duenak www.itakun.com web orrialdean, Itakun-eko bulegoan edo Amarau Ludotekaren eskuratu dezake.

Gainera gogoratu, inskripzioa egin baino lehen "umek inongo konpromisorik gabe Ludoteka ezagutu, probatu dezakeela".

Gazte Kluba
Gazte klubari dagokionez, berrikuntzak dakartza. Ostirala arratsaldean 17:30etik 19:30era bitako dira 8 eta 12 leku berezietan. Izan ere, bertan bi programazio ezberdin izango baitira.

LH3 eta LH4 mailako Ludoteka izango dute jolas leku. Bertan jolas kooperatiboak egingo dituzte. Haur guztiek erabiliko dituzte. Haur guztiek erabiliko dituzte. Haur guztiek erabiliko dituzte.

Kuadrillategi
Helduagoak ere, 13 eta 16 urte arteko gazteek bere lekua dute Kuadrillategi.

Honetan ere bi talde bereziak dira: DBH1-DBH2 eta DBH3-DBH4, eta astean behin bi orduko jingoa deitzen dena. Gaste lokalean bitarteko dira, oraindik zehaztutako dagokionez. Lagunen taldeak apuratu behar dira. Izan ere, laguntzerako hori lantzeko da hainbat ekintza egingo, azaldu dute aholkulariek.

Gazteekin programazio adostu eta haren proposamenak aintzat hartzen dira. "Egungo tailerrek egin ditugu", eta haur guztiek erabiliko dituzte. Haur guztiek erabiliko dituzte.

"Abentura gabonak aldera eskaintzera egingen da irteera, inauterietan desfile erraldoian parte hartzen dugun... Honetaz gain, KTC lesa egiten da beste herrietako Kuadrillategi taldeekin, bikoitz egin izan baita. Bertan rafting-a egin genuten, azaldu digute.

Hurrengo Kuadrillategiko bilokue ostiralean izango dira, DBH1-DBH2, 15:30ean eta DBH3-DBH4 17:30ean. ■



Egungo edo bodypaint izan ziren az Kuadrillategi egin ziren ekintzak.

ANAIAK JANTZ I - D I E N D A

Kale Nagusia 25 • LASARTIA-ORRIA
TEL: 943 562386



Mendi Duatloi ikusgarria Zubietan

■ Eguraldiak errespetatu egin zituen duatloilariak larunbat arratsaldean ■ Euskal Herri mailako txapelketa zegoen jokoan ■ 106 lasterkarik parte hartu zuten eta ez zen inolako arazorik izan

Giro aparta arnas zitekeen larunbat arratsaldean Zubietan aldean. Kirola eta natura uztartuz, ikuskizun polita eskaini zuten parte hartu zuten 106 lasterkariek. Euskal Herriko mendi duatloi txapelketa zegoen jokoan eta mendi duatloi ligarako hirugarren proba puntuagarria zen. Gizonezkoetan, Trigo taldeko Jon Erguin izan zen garaile, 1:12:37 denborarekin eta emakumezkoetan berriz, Amaia Liquin nagusitu zen, 1:44:29 denborarekin.

Jon ALTUNA EGITEGI

Euskal Herria Kirola Erakundearen eta Zubietan Lantzen taldearen laguntzaz, larunbat arratsaldean egin zen Zubietako Mendi duatloia. Euskal Herri osotik etorritako jendeak parte hartu zuen, Euskal Herriko txapela baitzegoen jokoan. Herritarren presentzia ere nabaria izan zen eta jende asko bertaratu zen Zubietara korrikalari eta txirindulari, biak batera diren kirolari hauek ikustera.

Ibilbide makurra

Printzipioz ibilbidea xamurtzat hartzen bazen ere, lasterkari askok aipatu zuten froga amaitzean gogorra egin zitzaie.

Izan ere, lehendabizi 4,9 kilometroko zirkuitua osatu behar zuten korrika; ondoren, mendiko bizikleta hartu eta

6,5 kilometroko barrutiari bi itzuli eman behar zizkieten; azkenik, 2,6 kilometro korrika egin eta helmugako marra zeharkatzen zuten. Errosarioa bailiran iristen ziren lasterkariak Zubietara, banan bana eta aurpegiko keinu okerrekin pairatutako sufrimenduaren berri ematen zuten.

Eguraldia protagonista

Eguraldia larunbatean pattal antzean esnatu bazen ere, arratsaldean hobera egin zuen. Albiste ona izan zen hori duatloilariarentzat, nahiz eta mendi bizikletan egin beharreko ibilbidea nahiko lokaztua zegoen larunbat goizko zaparradengatik.

Horrek are gogorrago egin zuen berez gogorra zen proba, eta nekea nabaria zen kirolarien aurpegietan helmugara iristen zirenean.



Endika Gartzia (bizikleta gainean, 3. postuan sailkatua) eta Jon Erguin (lasterka, irabazlea), ahalagin betean.



Protagonisten hitzak

Jon Erguin irabazlea, gustura zegoen behin Zubietako proba amaituta: "Gogor lan egin behar izan dut, asko eman behar izan diet pedalei eta azkenean, nahiko erraz irabazi dut".

Izan ere, Luis Maria Urizar bigarren sailkatuari hiru

minututik gorako aldea aterazio eta Endika Gartzia hirugarren sailkatuari berriz, lau minutu eta erdiko. Hala ere, Zubietako mendi duatloia, neguko triatloiak prestatzeko egin zuen urteko "helburua" baitira beretzat.

Bestalde, Endika Gartzia duatloilari eta antolatzailea

aldi berean, kontent zegoen lasterketak emandakoarekin: "Oso balorazio ona egiten dugu, jende asko bertaratu da eta lasterkariei zirkuitua gustatu zaie, gogorra izan arren". Gainontzean, "inongo arazorik" eduki ez zutela azpimarratu zuen Lasarte-Oriako kirolariak. •



Maila guztietako Euskal Herriko txapeladunak, pozik, podiumean.



106 lasterkarik parte hartu zuten larunbat arratsaldeko proban eta ez zen aparteko arazorik izan Zubietako proban

Txintxarri diruz laguntzen duten erakundeak



Lasarte-Oriako Udala
Euskarako Batzordea



GFAko Kultura eta
Euskara Departamendua



EUSKO JAURLARITZA
KULTURA SAILA

Argitaratzailea: Ttakun Kultur Elkarte, Geltoki kalea 4, 20160 Lasarte-Oria, 943 366858, G-20407557 • Legezko gordailua: SS513/93 • ISSN: 1134-0053 • Inprimategia: Zeroa Multimedia, S.A. Aleak zenbakiko: 7.700 • Erredakzioa: txintxarri@ttakun.com • Publizitatea: publizitatea@ttakun.com • Administrazioa eta banaketa: administrazioa@ttakun.com; ttakun@ttakun.com. Txintxarrik ez du bere gain hartzen iritzi-artikuluetan eta irakurleek bidalitako gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

Egunero

Erakusketa

DIEGO LETAMENDIA BELZUNCEREN erakusketa zabalik da urrian zehar, JALGI KAFE-ANTZOKIAN



Astelehena, 10

Ipuin-kontalariak

KONTUKANTOI taldeko ipuin-kontalariak 6, 7 eta 8 urteko gastexoei ipuinak kontatuko dizkiete Ipuinaren ordua n. HAURREN LIBURUTEGIAN IPUINA KONTATZEN, 18:00etan



Ostirala, 14

Emanaldia

AURORA PARRA sopranoaren kontzertua. MANUEL LEKUONA KULTURETXEAN, 19:30ean. Babeslea, Olaizola-Jauregui Abokatuak.



Euskal Rockaren hastapena

SALDA BADAGO dokumentala eskainiko da, ARGIA EGUNAREN barruan. 1970eko hamarkadaren amaieran eta 80koaren hasieran, nahasmendu politikoarekin batera, sekulako eztanda gertatu zen euskal musikagintzan. Hemendik aitzina sortu eta entzungo ziren doinu eta hitzek goitik behera aldatuko zuten musikaren esparrua.

ASTELEHENA, URRIAK 13
21:30EAN
JALGI KAFE ANTZOKIAN

Larunbata, 15

Dantza

ION MUNDUATE KONPAINIAI "SIN TÍTULO, EN COLORES" lana eskainiko du, LASARTE-ORIA DANTZAN ekimenaren bigarren saioan. MANUEL LEKUONA KULTURETXEAN, 20:00etan. Sarrera, 6 euro.

Igandea, 16

Zinea

"LOS PINGÜNOS DEL SR. POPER" filma ikusgai izango da, HAURRENTZAKO ZINEA atalean. MANUEL LEKUONA KULTURETXEAN, 17:00etan, GAZTELANIAZ. Sarrera, 3,30 euro.



Osteguna, 20

Zinea

OKENDO ZINEMA taldearen eskutik "CHICO Y RITA" filma ikusgai izango da OSTEGUN ZINEA atalean. MANUEL LEKUONA KULTURETXEAN, 21:30ean, GAZTELANIAZ. Sarrera, 4,30 euro.

Liburutegiko ordutegia

Astelehenetik ostiralera 10:00 - 13:00 eta
arratsaldetan 16:00 - 21:00

Larunbata 9:30 - 13:00

Manuel Lekuona kulturetxea • Geltoki kalea 18
Tel.: 943 376181

Esazu irratiko programazioa



Ostiralero programa!

FMko 105,5-ean izango gaituzue
ostiralero 9:30etik 10:45era

Oharrak

Lasarte-Oriako DYaren 25. urteurrena

Aurten 25 urte beteko ditu Lasarte-Oria eta Usurbilgo DYA errepidean laguntza eskaintzen duen erakundeak eta azaroaren 5an, besteak beste, bazkari batekin ospatuko dute urteurrena.

DYako bazkide eta bazkide ohiak daude gonbidatuta eta informazio edo argibide gehiago eskuratu nahi dutenek DYaren 943 46 46 22 telefono zenbaki nagusira deitu beharko dute.

Erketz Dantza Lagunak

Erketz Dantza Lagunak taldeak jakinarazten du dantzatzeko ikasteko saioak hasi dituztela.

Taldea ez da erabat osatu, lekua dago eta interesatuek entsegu egunean, asteartean bertan Zubaburuko ikastolako gimnasioan 20:00etatik 21:30era azaldu eta izena eman beharko dute.

Udaleku eta Udako Txokotako arropa galdua

Udako txoko eta udalekuetan egon diren haurren gurasoak galdutako arroparen bila hurbildu daitezke Ludotekara.

Arropa urriaren 14ra arte jaso ahal izango da astelehenetik ostiralera arratsaldetan.

Oharrak jartzeko:

Geltoki kalea 4
Tel.: 943 366858
txintxarri@txintxarri.info

Eskutitza

Itxaropena Alduntzin diputatuaren adierazpenen ostean

GZZk, sortu zenetik, hondakin arazoari aurre egiteko arazoaren erroetara jotzea eskatu du, zaborra sortzea eragiten duten mekanismoak ezabatzea hain zuzen. Kezka handiz ikusi dugu, orain arte hondakinak kudeatzeko planak egin dituztenek, arazoari irtenbidea emango liokeen eredu bat bilatu beharrean, zenbait industria sektore indartsuren negozio gosea nola asetuko jardun direla. Benetako irtenbidea bilatzen ahalegindu ez, eta gainera ahaleginean aritu direnei oztopo bat besteren atzetik nola jarri dieten ikusi behar izan dugu. Konpostatze plantan prezio garestiagoak ordainarazita, epaitegi

bidez konpostatze planta gehiago eraikitzeke proiektuak geldiarazita, salaketak jarrita, Hernaniko atez ateko bilketa sistema gerarazi nahian egin zuten bezala, hedabideen eskutik atez ateko sistemaren inguruan gezurrak bata bestearen atzetik zabaldua...

Errausketak, kutsagarria eta garestia izateaz gain, ez dio inolako irtenbiderik eskaintzen hondakin arazoari. Errausketak beharrezkoak ditu, plastikoa, papera eta materia organikoa negozio errentagarria izan dadin. Zuzen zuzenean lehiatzen du ahalik eta hondakin gutxien sortu eta materialeen berreskurapenean oinarritzen den zero zabor ereduarekin. Halaber, errausketak etxe ondoan inork nahi ez dituen zaborteak behar ditu, erretzen duenaren heren bat ber-

tan geratzen baita zabor toxiko eta arriskutsu moduan.

GZZk maiatzeko hauteskundeen ondoren, errausketarentzat MORATORIA eskaera egin zien Gipuzkoako erakunde osatu berriei. Moratoria hain zuzen, "munduan zehar emaitza onak ematen ari diren sistemak hemen ezartzeko aukera izateko" genion hitzez hitz.

Juan Karlos Alduntzin ingurumen diputatuak joan den astean egindako adierazpenak ildo horretan ulertzen ditugu. Itxaropentsu hartu ditugu hitzok, eta bide horretan laguntzeko gure prestutasun osoa azaldu nahi dugu. Orain artean oztopoak ez dira makalak izan, eta aurreiritzen ere erraza izango ez dela jakitun gara, baina horrek ez du arazo larri honi irtenbide txukuna emateko gure ahalegina etsiaraziko.

Gipuzkoa, Zero Zabor lurralde izatea lortu behar dugu. Hori, erakunde, eragile eta banakako herritarren partehartzearekin, guztiak norabide berean jarriz lortuko dugu. Oso garbi daukagu informazioak eta datuek arazoia ematen digutela, eta zenbat eta jende gehiagok horren berri izan, geroz eta gehiago izango gara zaborririk gabeko etorkizun baten alde ekitera bilduko garenak. Alduntzinek aipaturiko gogoeta tarte horrek berebiziko garrantzia dauka, munduan zehar osasuna, ingurumena eta ekonomia orokorra lehenetsiz praktikara eraman eta emaitza onak lortzen ari diren esperientziak aztertu eta Gipuzkoara egokitzeko.

Gipuzkoa Zero Zabor



Nafarroa Oinez-era autobusa

Ttakun K.E.-k urriaren 16an Tafallan antolatu den Nafarroa Oinez-era joateko autobusa antolatu du. Goizeko 09:00etan aterako da Jalgi Kafe antzoki ondotik eta buelta 19:00etan izango da.

Txartelak Jalgi Kafe antzokian eta Itakun-en daude eskuragarri. 14 euro balio dute txartelak eta elkarteak bazkidentzat 12 euro dira, beti ere, Itakuneko bulegoan erosten badituzte.

Gpuntuako final laurdenetan da Otamendi

- Bigarren izan zen Uxue Alberdiren atzetik kultur etxean jokatu zen Gpuntuako kanporaketan
- Ane Labaka eta Unai Muñoa ere sailkatu dira urriaren 22an hasiko den hurrengo faserako

Andoni Otamendi Lasarte-Oriako bertsolariak Gpuntuako Gipuzkoako Bertsolarien Txapelketako final laurdenetako txartela eskuratu zuen Kultur Etxean egin zen kanporaketan saio borobila osatu eta gero. Uxue Alberdiren atzetik bigarren izan zen herriko bertsolaria eta urriaren 22an Oñatin hasiko diren final laurdenetan izango da. Bestalde, Ane Labaka, Unai Muñoa, Amaia Agirre eta Unai Gaztelumendi Ttakun kultur Elkarteko bertso eskolan elkartzen diren bertsolariak ere izango dira hurrengo fase horretan.

Jon ALTUNA IZA

Bete egin zen ia erabat Manuel Lekuona kultur etxeko areto nagusia larunbat arratsaldean Gpuntuako Gipuzkoako Bertsolarien Txapelketako final zortzirenetako kanporaketa ikusteko.

Andoni Otamendi herritarak etxean kantatu zuen, eta ariketa guztietan aritu zuen ondo. Azkenean 484,5 puntu eskuratu zituen, Uxue Alberdiren atzetik bigarren eta final zortzirenetan kantatu duten guztien artean 9. puntuaziorik onena.

Emakumeak oholztan

Kanporaketa historikoa izan zen kultur etxean larunbatean jokatu zena. Eskola arteko txapelketetan gertatu ohi dena ikusi zen oholztan gainean, parte hartzaileen artean mutil baino neska gehiago izaten direla. Lau ziren emakumezko bertsolariak, Uxue Alberdi, Ainhoa Agirreazaldegia, Oihana Iguaran eta Amaia Iturriotz, eta beraiekin batera Andoni Otamendi eta Iñaki Apalategik kantatu zuten.

Oro har saio ona izan zen larunbatekoa eta kantatu zuten sei bertsolariatik lauk lortu zuten aurrera egiteko txartela, Alberdi, Otamendi,

Agirreazaldegia eta Apalategik.

Aipagarri da bestalde, Uxue Alberdik berriro txapelketari heldu diola ama izan eta gero, eta kasualitatez, egokitu zitzaizkion lehen bi gaietan amaren paperean kantatu behar izan zuen. Iparagirreraren doinuak, duela urte bete haurra hil zitzaizen bi guraso izan ziren Iñaki Apalategi eta biak, eta hark eskola jarri nahi zuen bitartean Uxuek ez zuen jarri nahi.

Gero, Espainiako selekzioaren kamiseta nahi zuen Andoni Otamendi umearen ama izan zen Uxue Alberdi. Oso saio polita osatu zuten zortziko txikian eta biek lortu zituzten punturik gehien. Andonik beste behin ere kantatu zuen guraso paperean, Ainhoa Agirreazaldegirekin batera minbizia duen ume baten guraso izan ziren eta hor ere bikain aritu zen. Bakarka, kartzelan, "Egunkaria ireki eta bere argazkia ikusi duzu. Ez zenuen horrelakorik espero" gaiarekin. Aitzol Iriondo bertso eskolako lagunari kantatu zion, ongi etorria egingo zitzaiola eta beste preso guztiak ere asatuko dituztela aipatuz.

Agurrean muxu bat bidali zien Andoni Otamendik bertso eskolako kideei eta ikusleen txaloak ere bertso eskolari



Andoni Otamendi kartzelatik oholztara bidean. Kartzelan den Aitzol Iriondo lagunari kantatu zion gero. Bete egin zen kultur etxea.

eskaini. "...bertso eskolari, ... aurtun urtemuga daukanari, ...20 urte herrikan kantari, ... ilusioa eta gogoia gidari, ... zuen txaloak eta muxu hau opari" kantatu zuen besteak beste.

Labaka eta Muñoa aurrera

Ane Labaka, Unai Muñoa, Amaia Agirre eta Unai Gaztelumendi ere sailkatu dira final laurdenetarako.

Asteburu honetan jokatu dira azken final zortzirenetako bi kanporaketa erabakiorrak eta aipagarri da Unai Muñoak azken unera arte itxaron behar izan duela bertan izan baita puntuen arabera sartu diren zerrandazkenak.

Ozta-ozta, baina bigarren aukera izango du bere helburua lortzeko, duela lau urte bezala final erdian sartu eta Euskal Herriko txapelketako txartela eskuratzea, alegia. •



Andoni Otamendi bikain aritu zen Kultur Etxean larunbatean egin zen kanporaketan.

amaraun
ludoteka

2 urtetik 8 urtera bitartekoentzat

Ttakun Kultur Elkarte (Geltoki 4, behea) // 943 371448 // aisia@ttakun.com // www.ttakun.com

asteazkenetan arte txokoa 17:30etatik 19:00ak arte

asteleneetan ariketa jolasak (actividades físicas) 17:30etatik 19:00ak arte